Nazioarteko argi-ilunak mehatxu baino gehiago, aukera?

MUNDUARI SO 2022

iratzar FUNDAZIOA

MUNDUARI SO 2022

Nazioarteko argi-ilunak mehatxu baino gehiago, aukera?

Iratzar Fundazioak urtero so egiten diogu munduari, zer gertatzen ari den zirriborratzen saiatu, arnas luzeko perspektibaz aritu eta komunitatearekin partekatu eta aritzeko asmoz.

Aurtengo azterketarako 2022 urteari begiratu nahi izan diogu, lozorrotik esnatu diren joera estrategikoak heldu eta aletzeko. Horien irakurketatik, 2023ko plaza geopolitikoaren lerro nagusiak definitzera ausartu gara. Hemen agertzen den guztia ez da dena, noski, baina ezinbesteko mapa marrazten saiatu gara aritzeko, gure jardun politikoan aritzeko. Irakurketa horretatik ideia gako batzuk atera dira ezinbestean: zibilizazio krisia, pandemia, gerlak, segurtasuna, nazioarteko ordena zahar-berriak eta burujabetzak (besteak beste).

Gure errealitatetik abiatu eta begirada zorroztеko hainbat ideia ekartzen dizkizuegu, abiapuntu bezala:

1. **Garenak gara eta gauden lekuan gaude.** Ardatz atlantikoan gaude, ipar globalean eta mendebaldean. Geroan ere gure kokapen geoestrategikoa oso aintzat hartu beharko dugu herri xedea duen egitasmo politiko, ekonomiko eta soziala zehazteko. Baina, era berean, garenak gara; eta horrek, betaurreko bereziak eskaintzen dizkigu munduan gertatzen ari dena ulertzeko, begirada kritikoz, dagoenarekin ez konformatzeko eta eraldatzeko.

2. **Ez dugu estaturik, eta horrek egoera zaurgarri batean kokatzen gaitu,** ekonomikoki, politikoki eta sozialki, autonomismo eta erregionalismo ahul eta zaharkitu baten menpean. Testuinguru konplexu horretan, zeharkatzen eta baldintzatzen gaituen berariazko faktore bat da.

3. **Erroetara. Mundu mailako sistema da.** Gertaera eta joera horien zioa ulertzeko erroetara joatea ezinbestekoa da: sistema patriarkala eta kapitalista nagusi da munduan. Eta, nola ez, dokumentu honetan ikusiko ditugun joeren iturburuan (zibilizazio krisia, esaterako), erabakien norabidean (gerla, esaterako), gertaerak irakurri eta aurre egiteko garaian (krisiak eta izurritea, esaterako)... abiapuntu hori kontuan izango dugu, irakurketa errazteko etengabe errepikatuko ez badugu ere.

4. **Erabaki eta gertakari historikoen zama.** Nola ez, munduaren ezaugarritzea gertakari historikoen ondorio da, edo egun arte hala izan da bederen. Egun gertatzen ari denak ere, asko du izan zenetik eta horren zamatik (adibidez, Ukrainako gerraren aurrean Europak hartutako posizioak, edota munduko potentzien berrordenatze moduak).

5. **Agertoki berezia.** Garai konplexu eta zailak bizi ditugu. 2022 urtea krisiek ezaugarritu dute; krisiek, pluralean. Krisiaz hitz egitea berria ez bada ere, ezinbestekoa da zibilizazio krisiaz hitz egitea gure garaiak ulertu ahal izateko. Zibilizazio krisiak txirikordatzen ditu krisi ekonomiko, politiko eta biosozial zahar-berriak. Horrekin batera, 2022a ezaugarritu dute COVID-19 izurriteak eta Errusiak Ukraina inbaditzeak Mendebaldean ekarritako ondorioek ere. Argi-ilun horietara sartuz, gako batzuk aurreratuko ditugu.

Dokumentua honela ordenatu dugu, berau irakurtzea eta mapa marrazten joatea erraztu ahal duelakoan:

- Joera geopolitikoak
  - Errusiak Ukraina inbaditzetik eratorriak
  - AEB eta Txinaren arteko lehia
  - Europako Batasuna
  - Latinoamerika
- Joera eta arrisku ekonomikoak
- Ondorioak eta agertokiak gurean

Gramsci-ren ideiaren gauzapena *"Mundu zaharra hiltzen ari da, berriari kosta egiten zaio ezin jaiotzea, eta argi-ilun horretan sortzen dira munstroak"*.

On egin!

JOERA GEOPOLITIKOAK

Errusiak Ukraina inbaditzetik eratorriak

COVID-19 hasi eta bi urtera, munduak beste astindu bat bizi izan du: Errusiak Ukraina inbaditzea inflexio puntu estrategiko garrantzitsu bat izan da. Errusiak Ukrainako lurraldean nazioarteko zuzenbidea urratzeak ondorio lazgarriak izan ditu, eta ezin da inola ere justifikatu. Gerraren konponbideak zaila dirudi, eta Mendebaldearen eta Errusiaren arteko epe luzeko konfrontazio politiko, ekonomiko eta militarra aurreikus daiteke.

Bistan da Errusiaren inbasio militarrak eta horrek zuzenean edo zeharka sortutako egoera globalak ez duela mundua segurago bideratu, ez behintzat giza segurtasunari dagokionez. AEBk Kosovon, Iraken edo Yemenen jada egin bezala, Ukrainaren kontrako gerrak nazioarteko zuzenbidea eta instituzioak higatu ditu. Errealitatearen argazkia bortitza

da. Horien ondorioak, besteak beste, honako hauek izan daitezke: burujabetza urratzea, etengabeko oinarrizko eskubideak bortxatzea eta nazioarteko komunitate gisa genituen bermeak desagertzea.

Esan genezake egun bizi dugun egoera honen lehen zauritua nazioarteko zuzenbidea bera izan dela. Herrien burujabetza ez errespetatzeak, ohiko gatazken konponbiderako bide militarrak eta hibridoak lehenesteak eta bide diplomatikoak baztertzeak mundua ziklo lehiakor batean murgildu dute; eta ondorioz, gerra nuklearraren arriskua hurbildu digute.

Horrek, ezinbestean, segurtasunaren auzia ekarri du lehen lerrora. Eredu ezberdinak eta posizio geopolitiko ezberdinak lehiatzen ari dira segurtasunaren ideia horren atzean, noski: batetik, Europa kontinentearen markoan, kontinentearen defentsaren auzia zabaldu da. Gerra hau AEBko mugetatik urruti izateak, baina, batez ere, Eurasiako erdigunean sortu izanak, agerian utzi du Europa osorako segurtasun eredurik ez dagoela. Eta horrek, kontinentearen oinarriak bake eta segurtasun gabe uzten du.

Bestetik, horrekin lotuta, 2022ko uztailean NATO-k bere kontzeptu estrategiko berriaren definizioa aurkeztu zuen. Horren arabera, Aliantza Atlantikoak etorkizuneko ingurune desafiatzaile estrategikora egokitu beharko luke bere jarduera. Hurrengo puntuan landuko dugun lehia sistemikoen itzulerak, Errusia oldarkor batek, Txinaren gorakadak eta teknologia berrien garrantziak osatzen dute ingurunea. Txostenak Errusia eta Txinarekiko jarrera gogortzea proposatzen badu ere, Errusia eta Txina ezberdintzen ditu: Errusia berehalako mehatxu lekutu gisa definitzen du; halaber, Txina mehatxu sistemikotzat jotzen du. Aliantzak Txina aurrenekoz aipatu du, eta nazioarteko ordena ahuldu nahi duen mehatxu gisa deskribatzen du (13. parrafoa). Ez dirudi, beraz, Aliantza desagertzeko borondaterik dagoenik. Alderantziz, NATO hegoaldeko lurralde berrien bila abiatu da, Kolonbia[1] horren adibide.

Erakunde horren kontzeptu berriak, Europarako segurtasun kolektiboaren ideia ekiditean eta Errusiarekin edozein akordio aukera blokeatzean jarri du ikusmira. Finean, AEBko hegemonia segurtatu nahi izan du. Horretarako, Europarako autonomia estrategikoaren proposamena ahuldu eta berarenganako menpekotasuna bermatu nahi izan du. Ukrainako gerrari emandako sostengu militarrak eta ekonomikoak[2] helburu horri lagundu diote.

Baina, segurtasunaren auzia lehen lerrora ekarri den honetan, zer dugu segurtasuntzat? Zer da seguru egotea? Ukrainako inbasioak (eta COVID-19 izurriteak) Mendebaldean dugun segurtasunari buruzko bizipena aldarazi dute edo, behintzat, segurtasunaz ulertzen dugunaren inguruko eztabaida ireki dezakete. Baina, egoera horren aurrean, ezkerreko indarrek, alderdiek, zein herri mugimenduek ez dugu momentuz segurtasunaren kontzeptu klasikoaren (dimentsio beliko soila) kritikatik haragoko segurtasun integrala ezaugarri dezakeen inongo proposamenik zabaldu. Segurtasun kooperatibo eta integralari buruzko planteamendurik egin dezakegu? Premiazkoa da ESLARE/ OSCE-ren eskutik nazioarteko bake eta segurtasunari buruzko

1. 2017az geroztik, Kolonbia NATOn sartu da kontinenteaz kanpoko bazkide gisa eta Latinoamerikako lehen eta herrialde bakarra da, Juan Manuel Santos presidente ohiak Bruselan sinatu zuen aliatu estrategikoa bilakatzea.
2. Ukrainari Laguntzeko osaturiko Europako Funtsak 3.100 milioi euro bideratu ditu.

konferentzia zabal bat antolatzea; eta horrekin batera, gerra geratzeko indarrak biltzea eta diplomazia eta negoziazio bideak bideratzea, Minskeko akordioak berreskuratuz.

Testuinguru horretan, deitoragarria izan da Europako Batasunaren papera. Aurrerago sakonduko badugu ere, armagabetze multilaterala eta globala bultzatu beharrean, NATOk eta AEBek zehazturiko bide militarra eta Errusiaren kontrako zigor-bidea sostengatu ditu. Zantzu guztien arabera, erabaki horiek ekarriko zituzten ondorioek ez dute larritasun nahikorik izan. Heriotza eta suntsiketarekin batera, Errusiaren kontra Mendebaldeak harturiko zigor ekonomiko eta blokeoak ondorio latzak sortu dituzte herritar eta langileriarengan. Eguneroko baldintzak erabat okertu dira nonahi.

Inoiz ez bezalako biolentzia, ezberdintasunak eta segurtasunik gabeko egoerak bizitza ari gara. Horrek bi norabidetan eragiten du: gerrak orain arte ezkutuan zeuden beldurrak eta eskuineranzko prozesuak iratzarri ditu; baina, kontrako norabidean, testuinguru belikoak burujabetzen aldeko beharra azpimarratu du, eta behar hori areagotu du gurea bezalako estaturik gabeko herrietan.

Gerra testuinguruak prozesu historiko sozialak bizkortu ditu, jada ageri ziren joera estrategiko berriak edo hasiberriak azkartuz, eta lurraldeen arteko artikulazioak eta mendebaldekoak ez diren lidergo politiko eta ekonomikoekin lerrokatze prozesuak indartuz. Gainera, gerrak, potentzien arteko lehiak eta nazioarteko instituzioen ahultasunak aldendu egiten gaituzte gure garaiko zibilizazio-erronkei aurre egin ahal izateko beharrezkoak diren estatuen arteko lankidetza eta konpromisoetatik.

JOERA GEOPOLITIKOAK

Potentzien arteko lehia

Mendebaldean bizitzen ari garen agertoki horren isla izan daiteke Jake Sullivanek (Joe Bidenen aholkularia) berriki utzi digun ideia: Gerla Hotzaren ondorengo garaia bukatu eta potentzia nagusien arteko lehia berrosatzen hasia omen da. Munduko zentro ekonomikoa ekialderantz mugitzen ari da eta, aipaturiko gertakariak tarteko, harreman geopolitikoak aldatzen ari dira erabat. Norgehiagoka horretan denak balio du: gerla, kapital metaketa, finantza espekulazioa, dibergentzia sozialak, bizitzaren prekarizazioa, natur baliabideen ustiaketa, *fake news*-ak, autoritarismoa...

Ildo horretan, arreta berezia merezi du AEBen eta Txinaren arteko lehia estrategikoak. Txina eta AEBen arteko lehia indartu egin da, baina ez Bretton Woodsek eta Nazio Batuen sistemak ezaugarritu zuten

Bigarren Mundu Gerraren ondorengo nazioarteko ordenaren klabe berdinetan. Bi bloke geopolitiko eta sozioekonomiko finko baino gehiago, interesen logika malguen arabera zehaztuko diren bloke ezberdinak agertzen ari dira. Alegia, trantsizio luze bat marrazten ari da ordena zaharra ordezkatzen duten indarren (Mendebaldekoak eta AEBrekin lerrokatzen direnak) eta mundu polobakarra zalantzan jarri eta ordena berria sustatzen dutenen artean (Hegoaldeko lurraldeak eta BRICS inguruan harremanak dituztenak). Mendebaldeko indarren arteko blokeak definituago dirudien arren, indar berrien artekoak askotariko formulen bidea har lezake. Gaur-gaurkoz, esan daiteke aktore anitz horien lerrokatzeak zerikusia duela munduko sistemaren ulerkera diferentearekin, eta ez paradigma kapitalistaren alternatibarekin. baino, mundu sistemaren ulerkera diferentearekin zer ikusia dutela.

Baina nola heldu gara ondorio horretara? Azken hamarkadetan, Txinaren eta AEBren arteko lehiak egituratu ditu nazioarteko harremanak. Gaur egun, Ukrainako gerra lerroburuetan egon arren, lehia horrek ardazten du, nolabait, oraindik guztiz aldatu ez den mapa.

NATOren bilerek eta Estatu Batuetako segurtasun nazionalari buruzko estrategiak Txina jarri dute jomugan. Lehia horretan, Txina ahuldu eta eskualde Indo-Pazifikoa kontrolatzeko hiru lerro garatu nahi dituzte AEBek: militarra, komertziala eta esku-hartze geoekonomikoa.

Lerro militarrari dagokionez, eskualde Indo--Pazifikoa da AEBko estrategiaren muina. Washingtonek nagusitasuna jokatzen du bertan. Hori dela eta, beste arma lasterketa bat abiatu du, aliantza-egitura berriak sortuz: QUAD segurtasun foroa edota 2021eko irailaren 15ean abiatu zuten AUKUS segurtasun foroa (aliatu anglosaxoiak) horren adibide dira.

Lerro komertzialari dagokionez, J. Bidenen gobernuak *Indopacific Economic framework* (IPEF) sortu zuen iragan maiatzean. Asiako hamahiru herrialdek osaturiko marko ekonomikoa da. Ozeano Pazifikoko merkataritzan esku-hartzea du helburu etaTxina marko horretatik baztertzen du. Hain zuzen ere, azken horrek 2020an sustatutako *Ekonomia eskualde integralaren elkartea* (RCEP) lehiatu nahi du.

Azkenik, lerro geoekonomikoari dagokionez, AEBek bi lurralde dituzte jomugan: Taiwan eta Artikoa. Lehenengoan, burujabetzaren auziaren aitzakiapean, Txinako itsasotik pasatzen den munduko merkataritza-gunerik handiena du helburu. AEBen ibilbide militarista eta inperialista ezaguna den arren, giza eskubideen defentsa arrazoituz, AEBek Taiwaneko erdieroaleen ekoizpenaren kontrola lortu nahi dute. Bigarrenean, Artikoari dagokionez, klimaren desizoztearen ondorioz, merkataritzarako bide berriak zabaldu dira, eta eskualde hori gobernatzeko disputa dago. Besteak beste, Txinako zetazko korridoreari begira aukera berriak ireki ahal dituelakoan.

Hori horrela, Xi Jinpingek hiru bide proposatzen ditu eskualde Indo-Pazifikoan AEBen asmo hegemonikoei aurre egiteko: lehenengoa, garapen baketsuaren bidea. Hau da, eskualdea ez da inoren atzeko patioa. Bigarrena, irekitasunaren eta inklusioaren bidea da. Bide horren baitan, Asia-Pacific Economic Cooperation (APEC) munduko merkataritza erakunderik handiena bultzatzen du. Eskualdeko lankidetza inklusiboa helburu izanik eta win-win arkitekturan oinarrituta. Hirugarrenik, elkartasunaren bidea legoke. Hau da, bide horretan, herrialde baten etekinak beste herrialde guztientzako etekina dakar eskualde horretan, Afrikan edo Latinoamerikan.

Hala ere, kanpo lerroak eta bideak horiek izanik ere, bi potentzien barne egoerak uste baino eragina handiagoa izango du lehian. AEBk inoiz ezagutu gabeko krisi ekonomiko eta sozialari aurre egin behar dio. Eta, zantzu guztien arabera, azken hamarkadetan mantendu duen anbiguotasun estrategikoari eutsiko beharko diola dirudi. Hots, Washingtonek Txina bakarraren politika defendatu dezake; baina barne oreken interesek eta merkataritza eta ekonomiaren beharrek une gatazkatsuak proboka ditzakete. Eta Txinaren kasuan, Zero Covid politikaren ondorioz krisi sozialari aurre egin beharko dio. Bere lurraldetasuna eta itsasoen ordena juridikoa segurtatzeko bitartekoak jarriko ditu, izan militarrak, ekonomikoak edo ziberespaziokoak.

Hasierako ideiara itzuliz, Gerra Hotzaren ondorengo nazioarteko ordenaren garaia bukatu da, eta potentzia nagusien arteko lehia berrosatzen hasi. Eta horretan, interesen logika malguen arabera zehaztuko diren blokeak agertuko dira. Tamalez, eta arestian genionez, mundu sistemaren ulerkera ezberdinen eta lehia logiketan mugituko diren blokeak izango dira, eta ez paradigma kapitalistaren alternatibak. Menu hibridoa zerbitzaturik dago, eta aurreikus daitezkeen ondorioak herritarren kalterako izango dira. Potentzien arteko lehiak biziko ditugu, ekonomia gerla bizi dugu. Zoritxarrez, ez dira garairik hoberenak izango bide politiko eta diplomatikoetarako.

JOERA GEOPOLITIKOAK

Europako Batasunaren noraez kapitalista

2022a Europaren etorkizunari buruzko eztabaida definitu behar zuen urtea zen; baina Ukrainaren inbasioak eztabaida saihestu du, eta agertokia erabat aldatu. Orain arte landu dugunetik, gerrak eta bere ondorioek indar globalen korrelazioan funtsezko aldaketa iragarri dute. Eta, horren barruan, Europaren eta Europarekiko harreman proiektuetan ere berebiziko eragina izan du. Errusia Europarengandik urrundu da, eta Txinarengana hurbildu. Eta, hein berean, Europa Errusiarekin eta Txinarekin ekonomikoki eta politikoki hausten ari da. Ondorioz, kaltetu egin da Txina-Errusia proiektu eurasiarra, Europako Batasuna integratzeko asmoa zuena. Hori gutxi ez, eta AEBen eragina asko handitu da Europako Batasunean; inoiz ez bezala, NATOren eta AEBen eredu kapitalistaren menpe dago.

Gerra hotzetik gaurdaino, Europak segurtasunari buruzko gaietan autonomia eta proaktibitate handiagoa izateko beharrari buruzko eztabaida etengabekoa izan du. Azken urteetan, nazioarteko ziurgabetasuna eta, munduko grabitate geopolitikoa Europako kontinentetik urruntzen joateak[3], historikoki eraikitako aliantza transatlantikoarekiko menpekotasuna kuestionatzera eramana zuen. Hain zuzen ere, honetatik sortu zen egun hain entzuna zaigun autonomia gehiago izateko eta proaktiboagoa izateko beharrari buruzko eztabaida etengabea izan du. Azken urteetan, nazioarteko ziurgabetasuna eta munduko *grabitate geopolitikoa* Europako kontinentetik urruntzen joateak[3], historikoki eraikitako aliantza transatlantikoarekiko menpekotasuna kuestionatzera eramana zuen.

Hain zuzen ere, honetatik sortu zen egun hain entzuna dugun *autonomia estrategikoa*ren kontzeptua. Horrela, Europako Batasunak, rol propioa jokatu nahi zuen defentsan, eta autonomoa izan nahi zuen ardatz transatlantikotik. Baina azken hau, diskurtso hutsa bilakatu da, EB ez delako gai izan AEBen interes inperialistetatik at kokatzeko. Hala, beraz, gerrak EBen oraina eta geroa norabidetu du, ardatz atlantista indartuz, EBen autonomia estrategikoaren ildoa eta erronka desitxuratuz eta bere buruzagien jokabidea zilegitasun gabe geratuz. Halaber, gogoratu beharra dugu Europako integrazioak ez duela atzerri politika bateraturik, ezta defentsa politika bateraturik ere. Eta azken horri dagokionez, behintzat, presio handia jasoko du Europako armada bat osatu eta arma nuklearrei bidea ireki diezaien. Finean, Europa munduko joko geopolitikoan protagonismoa galtzen ari da eta bere eredu kapitalistaren preso da.

TESTUINGURU BELIKOAREN ONDORIOAK MUGEN BARNEAN

Errusiako Federazioaren inbasio kriminalak eta EBk zein Mendebaldeak Errusiaren kontra harturiko zigor ekonomikoek ondorio zuzenak izan dituzte ukrainar, errusiar eta, oro har, europar herrientzat. Gerraren ondorioak dira, baina, era berean, Europako merkatuaren liberalizazioaren ondorioak ere badira. Biek ala biek hauspotzen baitute gainbeheran dagoen baina erortzen ez den sistema neoliberala.

Ondorio ekonomikoei dagokienez, izurriteak azaleratutako askotariko krisia azkartu du. Oraingo krisi hau hazkunde ahulean eta Europako herrialdeen arteko desoreka makroekonomikoetan islatzen da. Era berean, merkataritza-soberakinak dituzten herrialdeen eta zor publiko handia dutenen arteko ezberdintasuna handitzen ari da. Argazki goibel horren parte dira energia-hornidurarik eza, prezio neurrigabeak, inflazioa, errenta baxuenen erosahalmenaren galera eta gizarte-gastuen murrizketa edo galera ere. Kontrako norabidean, ordea, aurrekontu militarren hazkundea dugu. Horiek igo egin baitira.

EBek eta Europa osoak bizi duen energia-krisia azpimarragarria da. Alde batetik, Ukrainako gerrak sorturiko ondorioak, eta bestetik, maiz nahasten bada ere, energia trantsizioaren beharra. Errusiako gasarekiko EBk zuen erabateko dependentziak (adibidez, Alemaniak eta Italiak) eta klima larrialdiari erantzun beharrak (deskarbonizazioari, batez ere) EBk bere energia iturriak eta hornikuntza bide guztiak birmoldatu beharra ekarri du. Horrek

3. Munduko biztanleriaren % 65 eta munduko BPGaren % 62 Indo-Pazifikoko eskualdean dago. Europa jokoz kanpo gera daiteke. Datu kezkagarri bat: 2050. urtean, Europako herrialde bakar bat ere ez da munduko zazpi ekonomia handienen artean egongo

ondorio ugari ekarri ditu: nazioarteko aliantzetan aldaketak (batez ere, Afrika iparraldean), azpiegitura berriak adostu eta finantzatu beharra edo ondorio ekonomikoak (Alemaniako industria arriskuan, deslokalizazio posibleak, AEBri gasa erosi beharra Europako autonomia are gehiago kaltetuz...). Gainera, Europako eliteen artean ere barne tentsioak bizi izan dira (Frantziak energia nuklearraren aldeko apustua egiten jarraitzen du, Alemaniak ematen du gasa lortzeko hornikuntza bide berriak eta hidrogeno berdearen aldeko apustua egingo duela...). Bukatzeko, energia trantsizioa gerrarekin nahastu izan da.

Ildo beretik, badira bestelako ondorioak ere: aldaketarako edozein itxaropen kamustu da, itun berrien aukerak bere horretan geratuko eta *Europako Etorkizunari Buruzko Konferentziak* (COFOE) maiatzean egindako planteamenduak ez dira gauzatuko.

Testuinguru belikoak, komentatu bezala, jadanik indartsu agertzen zen militarizazioaren norabidea indartu du. Esaterako, Finlandia eta Suedia NATOko kide bilakatzeko aukera.

Aipatu dugun egoera belikoak faxismorako joera politikoa ere areagotu du eta eskuin muturraren baloreak eta egiturak zabaldu ditu. Horren erakusle nabarmenak dira Hungaria, Polonia, Italia, frantses eta espainiar estatuak, ongizate-estatuaren eredu izan den Suedia berarekin batera. Eskuin muturra ez da mehatxua sistemarentzat, kontrakoa baizik: statu quo-ari eusteko lanabes perfektua da. Are okerrago, gaia kezkagarri bilakatu da eskuin mutur hau instituzioetara heldu eta bertan eragin duenean: azken batean, agertoki politikoa eskuinerago mugiarazi du. Ikuspegi instituzional batetik, oso litekeena da esaterako Europako Batasunak, Europar Kontseiluaren erabateko adostasunaren araua aldatzea edo aldatzen saiatzea, edozein erabaki hartzeko orduan eskuin muturreko gobernuek izan dezaketen botere erabakigarria mugatzeko. Dena dela, aipatutako joerei hauspoa ematen diete politika sozialen murrizketek, zerbitzu publikoaren gabeziek eta eskubideen inboluzioek. Azken batean, eskuin muturrak ohiko egitura-desorekei eta pribilegioei eusteko lan egiten du, eta horretarako zenbait kolektibo pagaburutzat hartu eta eraso egiten die: migratzaileak, feministak eta, oro har, eraldaketa sozial bat aldarrikatzen duen oro. Ezkerreko indarrok badugu erronka itzela, badugu zer egin publikotasunaren defentsan eta ongizatearen norabidean beharrezko eraldaketaren defentsan.

Bestalde, segurtasunaren aferak migrazio politikekin zerikusia du, Europako Batasuneko politikek ez baitute giza-mugikortasunaren arloan konponbide iraunkorrik eskaintzen, batik bat mugimendu horiek bultzatzen dituzten politikek eredu kapitalista eta inperialista sustatzen dutelako eta migrazio-prozesuetan murgilduta dauden pertsonak trukerako txanpon gisa erabiltzen baitituzte.

ESTATURIK GABEKO HERRIEN AUKERA LEIHOA

Izurriteak lehenik eta ondoren gerrak burujabetzaren garrantzia utzi dute agerian eta, horren harira, 2022 urtean estaturik gabeko hainbat naziok urrats garrantzitsuak eman dituzte. Demos berriak sortu eta kontsolidatu dira, edota estatugintzaren tresna izateko agenda errotu da hainbat lurraldetan, Eskozian, Irlanda eta Kaledonia Berrian kasu. Hiru herrialde horiek epe motz-ertainean burujabe izateko aukera erreala izan dezakete. Eskozian bidea ez da gelditu, Auzitegiak erreferendumaren aukera atzera bota badu

ere. Eskoziarrek hauteskundeak eta beraz, bide parlamentarioa erabili dezakete, Independentziari baiezkoa emateko. Bi momentu izango dituzte: 2026ko Eskoziako hauteskundeak eta baita 2024ko Erresuma Batukoak. Euren indarren arabera erabaki beharko dute zein momentutan aurrera egin eta zein den biderik eraginkorrena. Zantzu guztien arabera, datozen asteetan eta konferentzia baten bidez, aukera hori aztertzeko aukera izango dute, Irlaren batasuna aurki gauza dadin. Batetik, Ostiral Santuko Akordioak batasunaren aldeko aukera aurreikusten eta aitortzen du. Bestalde, lehen indarra Sinn Fein izan daiteke, eta batasunaren aldeko gehiengo politiko eta soziala lortzeko aukera dago.

Azkenik, Kaledonia Berriari dagokionez, deskolonizazioaren bidearen aldeko hautua egin dute eta, NBEk iradokitzen duen ildoari jarraikiz, euren lurraldeak dekolonizaturik izan behar duela exijitzen dute. Ortzi-muga 2025erako ezarri dute.

Beste lurralde batzuetan epe erdira burujabetzaren aldeko gehiengoa politikoak artikulatzen ari gara. Globalizazioak gutxitu edo hustu egin ditu kasu gehienetan, estaturik gabeko nazioek zituzten eskuduntzak, zentroarekiko are menpekoagoak bilakatuz eta heldulekuak lausotuz. Egoera hau aintzat hartuz, Europako estaturik gabeko nazioen lan komunerako aukera garrantzitsua da. Pentsatu behar dugu balio eraldatzaileetatik nola aurre egin herri gisa proiektu neoliberalak sortzen dituen desberdintasun eta zapalkuntza sozial, homogeneizazio kultural, populazio mugimendu eta aberastasun metaketa prozesuei. Eta horretarako, burujabetza eta botere politiko handiagoa behar ditugula nabarmena da. Beraz, lurralde bakoitzak beretik, oztopoz eta zailtasunaz gain, burujabe izateko helburuari eutsi dio, une bakoitzean indar harremanen arabera denborak kudeatuz eta gehiengoak osatuz; bidea aldakorra den arren, xedeari eutsiz.

EZKERRAREN AGENDAREN BEHARRA

Luzaz ezagutu dugun *internazionalismoa* bi blokeen arteko talkak gidatu duen munduaren ordenan oinarriturikoa izan da. Gu bezala pentsatzen zutenekin harremanak eta proiektuak ehundu ditugu. Oso esperientzia aberatsa izan da eta, asko ikasi dugu elkarrekin. Mundua aldatu egin da geroztik, eta eredu partekatuago batera pasatzea ezinbestekoa zaigu: herri eta langileriaren errealitateri erantzungo dion eredura. Hori egiteko interes komunak identifikatu behar ditugu. Euskal Herrian, bi estatuetan eta Europan. Maila horietan kontsentsu zabal bat dago egituren demokratizazio, sistema publikoaren sendotze eta nazio-aniztasunaren ezinbesteko aitortzari dagokionez. Ezkerreko indarroi agenda komuna falta izan zaigu, eta horren faltak eragotzi du bestelako ibilbide bat egitea, interes komunen sintesia egitea eta bakoitzak lehenesten zuen sistematik aldendu eta orube komuna sortzea.

Ezkerrak erronka kolosal bat dauka begien aurrean: mundua aldatu egin da, eta horrekin batera marko narratiboa egokitu beharko dugu, herritarren beharrak eta kezkak eta gaurko errealitate politiko, beliko eta ekonomikoari erantzunak emanez eta gai koropilatsuak, segurtasuna adibidez, saihestu gabe.

Gai izango gara gaurko jendarteak planteatzen dituen erronkei erantzun eta segurtasun kolektibo eta globalaren ikuspegitik agenda bat osatzeko?

JOERA GEOPOLITIKOAK

Latinoamerika

Munduan eskuinaren oldarraldia handia den honetan, Latinoamerika bigarren olatu *aurrerakoi* baten lekuko izaten ari da eta, gobernu aurrerakoi eta ezkertiarrak gauzatzen ari dira. Mexikon, Andres Lopez Obradorrek kontserbadoreen nagusitasunarekin hautsi zuen; Hondurasen, zentro-ezkerreko koalizio baten buru izan zen Xiomara Castroren garaipenarekin; Txilen, zentro-ezkerreko hautagai Gabriel Boricen garaipenarekin (Kongresuan gehiengorik gabe), prozesu demokratiko berri baten aldeko mobilizazio sozial garrantzitsuen ondoren. Bolivian, estatu kolpearen ondoren hauteskudeetan Luis Arceren hautaketarekin; Kolonbian, Gustavo Petro hautagai aurrerakoiaren garaipenarekin, historikoki gobernu narkoparamilitarrek menderatutako herrialde batean, NATOren bazkide globala eta AEBtako base militarrak dituen herrialde

batean. Eta azkena Brasilen, Lularekin. Haien artean ezberdintasunak nagusi izan arren, guztiek helburu bera dute, hots herritarrek bizitza duinak izatea eta hori erdigunean jartzea, eta Latinoamerikako lurraldeen arteko lankidetza indartzea. Aldi berean, krisi klimatikoaren aurrean, gobernu berri horiek Amazoniako oihanaren hondamendiari eta baliabide naturalen arpilaketari aurre egiteko politika kontinentalak proposatu dituzte.

Esan daiteke munduko egoera beliko eta neoliberal honetan Latinoamerikak ezkerra eta indar aurrerakoien esperantzaren leihoa zabaldu dutela. Egoera orokorrari buruzko ondorengo gakoak azpimarratuko ditugu: gaurko ezkerraren egoerak aliantza politikoen artikulazioa jarri du erdigunean. Eskuina eta eskuin mutur mediatiko, ekonomiko eta politikoari aurre egiteko bide gisa. Txile, Kolonbia, Brasil, Argentina, Mexiko horren adibide dira. Aliantzen artikulazioak Kultura politiko berri bat zabal dezakeen arren, formula horrek ez du ezinbestean espektatiba eta lorpenen arteko oreka bermatzen. Hau da, boto-emaileen espektatiben eta gobernu berrien lorpenen artean desoreka handiak daude. Desoreka horiek erakusten digute denboraren ulerkera ezberdinen kudeaketak, lorpen material nahiz aldaketa sinbolikoen garrantziak eta instituzioen eta herri-mugimenduaren arteko sinergia aintzat hartu behar dela.

Txileko prozesu konstituziogileak merezi ditu lerroburu batzuk. Pinocheten konstituzioa ordezkatu behar zuen Lege Nagusia lortu ez bazen ere, %62k aurkako botoa eman zuen erreferendumean. Prozesu konstituziogilea irekita dago eta, bideak berak, ahaldundu eta politizatu ditu Txileko sektore zaurgarri eta aurrerakoienak, jatorrizko herriak eta feministak kasu.

Zaila da esperientzia horiek izango dituzten ondorioak neurtzea, goizegi da. Baina seguraski politika publikoak ulertzeko eta gauzatzeko bide berriak zabalduko ditu. Hori bai, gobernuaren jabe izatea ez da boterea edukitzearen sinonimo eta beraz, egitura-aldaketen eta aldaketa puntualen arteko erronka helburu izatea ezinbestekoa da.

Ezin aipatu gabe utzi, Latinoamerikako herrialde aurrerakoietan, borroka feminista funtsezkoa izaten ari dela azken hamarkadetan (munduko beste txoko askotan bezala, garaiko zerumugak irekiz) emakumeen sexu eta erreprodukzio eskubideen, sexu-disidentzien disputetatik... antolaketa sozial, politiko eta ekonomikoen inpugnazioetaraino. Azpimarragarria da Argentinan, Txilen eta Kolonbian feministek ahalbideratu duten bidea. Zentzu berean, Txile eta Brasilen feministen prozesu politikoak eraldatu dituzte, irizpide berriak ezarri dituzte demokratizazio, parte hartze eta bizi duinaren eraikuntzak izan behar dituen zentralitatetik. Nola ez, aurretiaz aipatu bezala, *statu quo*-aren defendatzaileen, kontserbadoreen eta ultraeskuinaren erreakzioak ez du itxaron eta ez da motz geratu Txileko prozesu konstituziogilean edo Brasilgo hauteskundeetan, eta feministen jasandako biolentzia politikoa nabarmena izan da.

Ezin aipatu gabe utzi, Latinoamerikako herrialde aurrerakoietan, borroka feminista funtsezkoa izaten ari dela azken hamarkadetan (munduko beste txoko askotan bezala, garaiko zerumugak irekiz) emakumeen sexu eta erreprodukzio eskubideen, sexu-disidentzien disputetatik... antolaketa sozial, politiko eta ekonomikoen inpugnazioetaraino. Azpimarragarria da Argentinan, Txilen eta Kolonbian feministek ahalbideratu duten bidea.

Zentzu berean, Txile eta Brasilen feministen prozesu politikoak eraldatu dituzte, irizpide

berriak ezarri dituzte demokratizazio, parte hartze eta bizi duinaren eraikuntzak izan behar dituen zentralitatetik. Nola ez, aurretiaz aipatu bezala, statu quo-aren defendatzaileen, kontserbadoreen eta ultraeskuinaren erreakzioak ez du itxaron eta ez da motz geratu Txileko prozesu konstituziogilean edo Brasilgo hauteskundeetan, eta feministen jasandako biolentzia politikoa nabarmena izan da.

Estrategia inperialistaren beste tresna zahar--berria ordezkari zein gobernuburu aurrerakoien kontrako atentatuak izan dira: Cristina Fernandez, Marielle Franco.... adibide. Eta, nola aipatu gabe utzi, arrazionalitate neoliberalaren zabaltzea ezagutzen dugun azken zirrikituetaraino. Horretarako, ohiko tresna mediatikoak erabilita, fake news-ak zabalduta, erlijio pentekostisten eragina baliatuta edo geroz eta gehiago ziberespazioaren aukerak erabilita. Nola ez, eskuin muturraren taldeen osaketa eta finantzazio-iturri handiei erabat lotuta dago, 2022ko urrian Mexikon ikusi ahal izan genuen bezala.

2023an, Monroe Doktrinaren bigarren mendeurrena izango da. Doktrina horrek oraindik bizirik jarraitzen du eta adibiderik berriena Perun aurkitu dugu. Pedro Castillo atxilotu, prozesu demokratiko eta konstituziogilea ukatu eta, AEBekiko menpekotasuna eta leialtasuna bermatuko duen Boluarteren gobernua ezarri da. AEBek hemisferio amerikarraren gaineko nagusitasuna eta eskuhartze zuzena bermatzeko doktrina ezaguna da. Eta ondorioak ere historikoak dira, AEBek eta Europako Batasunak Kuban nahiz Venezuelan ezarritako bloke ekonomiko eta finantzarioak adibidez. Doktrina hori Bidenen segurtasun nazionalaren estrategian berresten da. Hala ere, bistan da, indar aurrerakoi, ezkertiar eta feministek eraiki dituzten esperientzia politiko eta instituzionalak parez pare izango dituztela. Gainera, eredu inperialista horren ordez, integrazio kontinentala lanabes eraginkorra izan daiteke. Horretan ari dira UNASUR bultzatzea eskatu duten politikariek[4] eta kontinenteko merkataritza-transakzioak egiteko Sur monetaren inguruko arkitektura finantziarioaren proiektua garatzen ari dira.

4. UNASUR 2022ko azaroan presidente eta presidente ohien deia. Besteak beste Lopez Obrador, Boric, Petro, Lula, Mugica....

MUNDUARI SO 2022

Joera geoekono-mikoak

Ekonomia globalak erronka handiei egin beharko die aurre egungo testuinguruan: krisi ekologikoa, energiaren eta elikagaien garestitzea, zaintza-krisiak, pribatizazio joerak, migrazio-mugimendu behartuak, mundu ordena berrirako lehia ekonomikoak, Errusiaren Ukrainako inbasioaren ondorioak, inflazioaren presio iraunkorrak, bizitzaren garestitzeak, eros ahalmenaren jaistea... Mendebaldeko herrialdeetan, 2021eko Covid-19 pandemiaren ondorengo susperraldia ez da aurreikusi zen modukoa izan. 2022 ekonomiaren moteltzearen eta bizitzaren garestitzearen urtea izan dela baiezta dezakegu, eta 2023 urteari begira ere ezin dugu ikuspegi baikorrik izan. Hurrengo lerroetan laburrean aletuko ditugu horietako batzuk eta, batez ere, gehiengoaren bizi- eta lan-baldintzetan dituen ondorioak izango ditugu presente.

Jakina da ekonomia ez dela eremu isolatua. Ohiko begirada ekonomikotik harago, planetarekin eta baliabide naturalekin du zerikusia, baina baita ikusiezin diren zaintza lanekin, sektore publikoarekin, jendartearen ohitura, antolaketa eta mugimenduekin... eta nola ez, politika ekonomikoekin. Neoliberalismoa izan da jaun eta jabe azken hamarkadatan munduan, politika ekonomiko, sozial eta mundu ikuskera ezarri ditu. Hain zuzen ere, mundu ikuskera horrek eta azken hamarkadetako globalizazioak egungo egoera marraztu digute. Mapa bat bailitzan, urrats edo gertakari bakoitzak beste bati lotzen gaitu eta, beste hori eragiten du.

Baliabideei dagokienez, 70eko hamarkadan argitaratutako Meadows txostenak jada azaleratu zuen hazkunde ekonomiko etengabea bideraezina zela. Baliabide fisikoak mugatuak dira eta, planetako bizia leheneratzea ahalbidetzen duten ziklo naturalen erritmoa ez dator bat kapitalismoaren metabolismoekin Yayo Herreroren hitzetan. Gaur egun gainditu ditugu orduan jarritako muga horiek. Baliabideak edo lehengaiak agortze bidean daude, eta kasu batzuetan agortu ez badira ere horiek erauztea zailegia da kasu batzuetan. Bizitzaren metabolismoak gutxitzen ari dira, esaterako, polinizazioa, fotosintesia, uraren kalitatea... murrizten ari dira, klima aldatzearen eta bioaniztasuna galtzearen ondorioz. Eta desoreka dago krisi honen oinarrian, neurrigabea baita Mendebaldeko herrialdeen aztarna ekologikoa (hots, pertsona, hiri edo herrialde batek zenbat lur eremu behar duen bere bizi-estilo materialari eusteko) munduko beste herrialdeekin alderatuta.

Beraz, lehengai eta elikagaien etorkizuna hipotekatzen aritu izan gara. Kapitala metatu asmoz ekoizpena merkeagoa zen lurraldeetara eraman eta ekoizpen-kate globalak sortu ditugu, eta egun baliabide horiekiko lehiakide gehiago ditugu (historikoki zapalduak izan diren Hegoaldeko herrialde horiek *garatze-bidean* ari direnak). Orduan, zer gertatzen da? Agortzeak eta botere-lehiak energiaren nahiz elikagaien prezioaren igoera ekarri dituztela, besteak beste. Inflazioa pairatzen ari gara. Eta horri lotuta, era berean, Banku Zentralak interes-tasak igotzen ari dira. Balizko lege ekonomikoei jarraituz, kontsumo igoera motelduz gero, inflazioa kontrolatu ahal izango litzatekeelakoan. Baina ikuspegi kritiko batetik begiratuz, egungo inflazioak ez dio erantzuten kontsumoaren igoera hipotetiko bati edo interes tipoaren bilakaerari, baizik eta, aipatutako lehengaien igoerari, eta beraz, Banku Zentralek egindakoak nekez eragin dezake prezioen igoera kontrolatze horretan, ez bada herritarron kalterako.

Erabaki horiek zehazki, ondorio lazgarriak dakartzate: desberdintasun sozialak, miseria, gosetea, migrazioak, jarrera autoritarioak areagotzea...

Aipatutakotik, ekonomiak ere badu zerikusia munduan bizi garenokin. Azterketa prospektiboen arabera, munduko biztanleriak hazten segituko du datorren hamarkadatan. Dagoeneko, 8.000 milioi biztanleen marka gainditu berri dugu. Horrekin batera, konplexuak izango dira datozen erronka demografikoak, eta gehienetan banaketa erabat desorekatua izango da, tokian toki. Tendentzia orokorrei so eginik, batez ere Afrika eta Asiako biztanleriak egingo du gora, Europak (eta neurri batean Amerikak ere) aldiz, behera.

Mendebaldeko herrialdeetako biztanleriaren gehiegizko zahartzea ekarri dute bizi-itxaropena luzatzeak eta gerra ezberdinen osteko hazkunde demografikoak (piramidea baino erronboa da egun). Horrek eragin zuzena izango du jendarte-antolaketa sozial zein politikoan eta ekonomian. Mendebaldeko herrialde aberas-

tuetan, zerbitzuen eskaintza eta hurbiltasunak nahiz enplegu-aukerek banaketa desorekatzen dute hiri- eta landa-eremuen artean. Hiru pertsonetatik bi hiriguneetan biziko dira 2030ean. Globalizazioak eta munduan zehar milioika lagunen desplazamenduak eragiten ari diren egoerek (gerrek, pobreziak, orotariko esklusioek edota mendebaldeko herrialdeen eskulan-beharrek) isla argia izango dute herrialde bakoitzeko demografian eta ekonomian. Horren adibide ditugu Irak, Afganistanen, Ukraina, Sahara Hegoalde eta Afrika Erdiko Errepublikan gerra suntsitzaileak, gelditu behar ditugunak. Ehunka milioi pertsonen bizitzak galdu eta bizimoduak zapuzteaz gain, baliabide-xahuketa izugarria eragiten dute, eta ingurumenari kalte handia egiten diete.

Horrez gain, ekonomiak ere badu zerikusia ikusezinak diren lanekin, eta horien krisiekin, bizitza bera jasangarri egitea zalantzan jartzeko moduan. Zaintza lanak ezinbesteko lanak dira bizitza duinak bermatzeko. Lan horiek gabe ez legoke ez komunitate ez ekonomia ez kultura ezta politika bera ere. Aitortzarik gabeko lanak dira. Kapitalismoak duen oinarrizko kontraesantzat hartzen du Nancy Frasser pentsalari feministak: sistemak ezinbesteko ditu lan horiek eta aldi berean horiek egitea eragozten du. Mundu zabalean modu ezberdinean ebatzi eta antolatu arren, argi dago nork egiten dituen: zaintza-lan ez ordainduen hiru laurdenak emakumeek egiten dituzte eta, ordainduak diren zaintza lanen bi herenak ere bai. Emakumeek gizonek baino sei aste gehiago lan egiten dute urtean. Ez da, beraz, emakumeek lanik ez dutela egiten, baizik eta lan gehiegi egiten dutela (ez ordaindua, ez aitortua). Horren dimentsioa ulertu ahal izateko konparaketa bat ekarri dugu: lan ez ordainduen balioak hirukoiztu egiten du mundu osoko teknologian eginiko gastua.

Neoliberalismoak hamarkadetan sinestarazten saiatutakotik urruti, ekonomiak zerikusi handia du estatu eta eremu publikoarekin. Ekonomia politikoa da eta, politika ekonomikoa. Menbebaldeko zenbait herrialdetan (gurean kasu) eremu publikoaren parte izan diren zerbitzuak eta herritarren parte-hartze espazioak eskualdatzen ari dira enpresa, elite edo erakunde pribatuetara (irabazi asmodunak). Hala ere, pribatizazio oso pribatizazio maila ezberdinak gertatzen dira herrialdeen artean, baita Mendebaldeko herrialdeen artean ere. Esaterako, azken urteetan, banku eta enpresa handiei diru publikoa oparitu diete: banku-erreskateak, energia-konpainiei diru-laguntzak, aldi baterako enplegu-erregulazioko espedienteak... Eta modu berezi batean, garapen digitalaren aitzakiapean (alternatiba libreak egonik ere), enpresa pribatu asko sartu dira eremu eta zerbitzu publikoetara. Hezkuntzan Google-kin gertatzen ari den moduan, dependentzia areagotzen ari zaigu komunikazio bide pribatuekiko (sare sozialak, etab.). Beraz, neoliberalismoaren oinarria ustezko estatuaren interbentzio eza bada ere, estatuaren gastu publikoa igotzen joan dela ikus daiteke eta, hau, ez da izan zerbitzu publikoetara bideratzeko.

2008ko krisiaz geroztik, austeritate politika deiturikoak gauzatu dira: gastu publikoa baldintzatu (ez gutxitu) eta neurri estatalak (guztioi eragiten digutenak) hartu, ekonomia pribatuaren mesedetan. gastu publikoa handitu bada ere, zerbitzu publikoak (osasungintza, hezkuntza, elikadura, laguntza sozial mota ezberdinak...) gutxitu eta pribatizatzen ari dira. Horrek, bere horretan, ondorio lazgarriak dakartza: galdu egiten da unibertsaltasun izaera, aukera ordaintzea posible duenari baino ez baitzaio ematen (osasuna, elikagaiak, etxebizitza...) eta lan horien pisua familiengan eta emakumeengan erortzen baita. Lan horiek ezin direnean egin, merkatu pribatura

ateratzen dira (egoera prekarioan) edo bestela ezkutukoan egiten dira (esplotazio egoeran), zapalkuntza kate globalak sortuz.

Dokumentu honetan jada aipatu dugunetik, mundu-ekonomiaren grabitate-zentroa ere ekialdera mugitzen ari da. *London School of Economics* unibertsitatean egindako ikerketa batean, munduko herrialdeen BPGaren tendentziak hartu dituzte oinarritzat. Alderaketak eginez, 1980an Atlantikoan zegoen batez besteko grabitate zentroa; 2050ean, berriz, Txina hegoaldean kokatuko da. Besteak beste, arrazoien artean aurkituko dira BRICS herrialdeen gorakada, (Brasil, Errusia, India, Txina eta Hegoafrika), mendebaldeko herrialdeetatik lantegi asko lekuz aldatzea, lehengai- eta energia-jabetza eta -ustiaketak eta ekialdeko ekonomien susperraldia. Hegemonia ekonomiko eta politikoagatik lehian ari diren AEBen eta Txinaren arteko gerra ekonomikoak bigarren mailako funtzioak esleitzen dizkio Europari. Gainera, datu guztien arabera hiru ekonomia handienek, AEBkoak, Txinakoak eta Eurogunekoak, geldirik jarraituko dute. Esan dugunez, gerrak ekarri du munduaren berrantolaketa azkartzea. Gerrak sortutako tentsio politikoek eta mendebaldeak bultzatzen dituen Errusiaren kontrako blokeo, sabotaje eta zigorrak mundu osoko ekonomia oinarrietan eragina izango du. Balizko zatiketa politiko eta ekonomiko horrek egungo elikagaien krisiari edota klima-aldaketa bezalako arazo globalei aurre egiteko ezinbestekoa den lankidetza multilaterala oztopa dezake.

Arrisku-testuinguru honetan, ezinbestekoa da honakoa ere ekartzea: politika ekonomiko horien ondorioek modu desorekatuan zeharkatzen gaituzte. Dualizazio sozialaz hitz egiten den honetan, banaketa eta desoreka hori muturreranzko joeran hazten ari da. Azken hamarkadetan munduko aberastasunak handitzen jarraitu du, baina aberastasun horren banaketa desorekatuan dago gakoa: mundu-aberastasunaren %45,6 dago fortuna globalen esku, %1aren esku. Hamar aberatsenek pandemiaren aurretik zutena bikoiztu dute. Aldiz, munduko gainerako herritarren diru sarrerak nabarmen jaitsi dira. 10.000 dolar baino gutxiago dutenak munduko populazioaren %53 dira. Bizitza garestitzen ari da. Krisi ekologikoaren ondorioengatik, balio-kate globaletan gertatzen diren arriskuengatik, enplegu galerengatik, zerbitzuen pribatizazioagatik, interes tipoen igoeragatik, etxebizitzen prezio igoerengatik... Mendebaldeko herrietan azken hamarkadetako prezio igoera handienak gure eguneroko bizitzak zailtzen ditu, sartzen dugunaren eta duin bizi ahal izateko gastatu behar denaren arteko aldeak gehiegi estutuz.

Laburbilduz, datozen urteetara begira aurreikusten ditugun erronka kolosalak ondorengoak lirateke:

- Kapitalismoaren oinarrian dagoen aberastasunaren metaketa iraunkortzea.
- Lehia geopolitikoen ondorioz, Ukrainako gerraren jarraipena luza daiteke eta baita, lehia horietatik, energiaren prezioen igoera.
- Lehengaiak garestitzearen ondorioz, inflazioaren etengabeko gorakada eta desinflazio politikak.
- Kanpo-zorraren krisiaren areagotzea
- Txinaren hazkundearen moteltzea
- Liskar zibilak eta gosete-prozesua
- Natur-baliabideen ustiaketa, batez ere litioa, kobaltoa...
- Trantsizio ekologikorako proposamen eta norabide ezberdinen lehiak
- Mendebaldeko ekonomietan zaintza-krisia sakondu.
- Arrazoi ezberdinek behartuta, biztanleriaren mugimendu masiboak

Balia genitzake arrisku eta joera hauek bestelako narratiba eta antolaketa sozio-ekonomiko berriak barnebilduko lituzkeen agenda zehazteko? Agian interesgarria izan daiteke hainbat oinarrizko osagai lituzkeen artikulazioan pentsatzea, ezinbestean, trantsizio ekosozialaren garrantzia, eredu produktibo eta erreproduktiboaren berpentsatzea eta sektore publiko eta komunalaren lekuaz zeharkatuta. Funtsean burujabetzaz ari gara, geopolitikan arazoa den oinarrizko gaia hain zuzen ere, baina era berean soluziobidea den bidea.

MUNDUARI SO 2022

Ondorioz

Garai konplexu eta zailak bizi ditugu. 2022 urtea zerbaitek ezaugarritu baldin badu krisiak hitza erabiltzea ezinbesteko zaigu. Krisiaz hitz egitea berria ez izanik ere, zibilizazio krisiaz hitz egiten hasiak gara azken urte honetan. Zibilizazio krisiak txirikordatzen ditu krisi ekonomiko, politiko eta biosozial zahar berriak, baina baita, 2022 hau ezaugarritu dituzten Covid 19aren izurriteak eta Errusiako inbasioak Ukrainan ekarri dituzten ondorioak. Ondorio horiek gako batzuetan laburbildu ditugu:

Bat. Mendebaldean bizitzen ari garen agertoki honen isla izan daiteke Jake Sullivanek (Joe Bidenen aholkularia dena) berriki utzi digun ideia: Gerra Hotzaren ondorengo garaia bukatu eta potentzia nagusien arteko lehia berrosatzen hasia omen da. Munduko zen-

tro ekonomikoa ekialderantz mugitzen ari da eta, aipaturiko gertakariak tarteko, harreman geopolitikoak aldatzen dira erabat. Norgehiagoka horretarako denak balio du: gerra, kapital metaketa, finantza-espekulazioa, dibergentzia sozialak, bizitzaren prekarizazioa, natur-baliabideen ustiaketa, fake news-ak, autoritarismoa... hain gertukoa zaigun Gramsciren ideiaren gauzapena hain zuzen ere, "Mundu zaharra hiltzen ari da, berriari kosta egiten zaio agertzea, eta argi-ilun horretan sortzen dira munstroak".

Bi. Ildo horretan, Txina eta AEBen arteko lehia indartu egin da. Bretton Woodsek eta Nazio Batuen sistemak ezaugarritu zuten Bigarren Mundu Gerraren ondorengo nazioarteko ordena klabe berdinetan. Bi bloke geopolitiko eta sozioekonomiko estanko baino, interesen logika malguen arabera zehaztuko diren bloke ezberdinak agertzen ari dira. Alegia, ordena zaharra ordezkatzen duten indarren (mendebaldekoak eta AEBrekin lerrokatzen direnak) eta mundu polobakarra zalantzan jarri eta orden berria sustatzen dutenen (Hegoaldeko lurraldeak eta BRICS inguruan harremantzen direnak) artean trantsizio luze bat marrazten ari dela. Mendebaldeko indarren arteko blokeak definituagoa dirudien arren, indar berrien artekoak formula anitzen bidea har lezake. Gaur gaurkoz, esan daiteke aktore anitz horien lerrokatzeak paradigma kapitalistaren alternatibarekin baino, mundu sistemaren ulerkera diferentearekin zer ikusia dutela.

Hiru. Europako Batasunaren noraeza ukaezina ezina da: Brexitaren erabakiaren osteko ondorio ekonomiko eta sozialak eta Ukrainako gerraren lerrokatze atlantistak autonomia estrategikoaren kontzeptua guztiz lurperatu ez badute ere, arrunt ahuldu dute. Inflexio-puntu estrategiko garrantzitsu bat ekarri du Europako kontinentearen defentsa eta posizio geoestrategikoaren auzia mahai gaineratuz.

Lau. Gerrak Nazioarteko zuzenbidea eta instituzioak are gehiago higatu ditu. Demokraziaren galera berretsi da horrela, eta autoritarismoari eta indar erreakzionarioei etorbideak ireki zaizkie.

Bost. Errusiaren Ukrainako inbasioak eta Covid 19 izurriteak mendebaldean dugun segurtasunari buruzko bizipena aldarazi du edo, behintzat, segurtasunaz ulertzen dugunaren inguruko eztabaida ireki du. Baina egoera honen aurrean ezkerreko indarrek, alderdiek, zein herri-mugimenduek, ez dugu, momentuz, segurtasunaren kontzeptu klasikoaren (dimentsio beliko soila) kritikatik haragoko segurtasun integrala ezaugarri dezakeen inongo proposamenik zabaldu. Segurtasun kooperatibo eta integralari buruzko planteamendurik egin genezake?

Sei. Testuinguru honen baitan eta erronka ekologiko kolosalak parean, beharrezko trantsizioak eta hegemonia-lehiak elkar topatzen dira. Egiptoko COP27 konferentzian adibidez, botere-lehia politiko-ekonomiko-belikoek oztopatu dituzte estatuen arteko lankidetza eta konpromisoak trantsizio ekologikoari ekiteko. Ez hori bakarrik, energia-politikek behar duten ikuspegi estrategikoa ere deformatzen dute. Are gehiago, lehia horretan eragiteko moneta bilakatzen da hori ere.

Zazpi. Ekonomia globalak erronka handiei aurre egin beharko die. Krisi ekonomikoen osteko eta Covid 19aren osteko mendebaldeko ustezko susperraldi ekonomikoa ez da aurreikusten zena izaten ari. Gerraren, ekoizpen-kate globalen edo eta lehia geo-estrategikoen ondorioek zuzenean eragiten dute gure herrietako ekonomietan: erregai eta elikagaien prezioen igoera, material eskasia, energiaren garestitzea, Banku Zentralek erabakitako interes tipoen igoera... Politika

neoliberalak luzatu nahi izatea bizitzaren prekarietatea dakar gehiengoarentzat baita mendebaldean ere.

Zortzi. Argi-ilun horretan, eta 2009an ez bezala, bi ahots altxatu dira nabarmen. Eskuin muturra alde batetik. Botere zuri, kolonial eta patriarkala defendatzen dituen balore kontserbadoreei lotu eta horiek hedatzeari ekin dio. Arrazionalitate neoliberala lau haizeetara zabaldu da, krisi garaian segurtasun materialaren zein emozionalaren ideia eta heldulekuaren sentimendua eskainiz.

Bederatzi. Bestalde, neoliberalismoaren kontrako narratibak ere agertu dira, eta badaude. Gerra, Covid 19aren izurriteak eta krisietatik ahots aurrerakoiak politizatu dira. M. Garcesen ideiari jarraituz posiblea denaren markoa gainditzera bidean, burujabetzaren ideia indarra hartzen ari da. Estaturik gabeko nazioetako demos-ek badugu hemen aukera. Burujabetza eskuratzearen aldeko aukera. Demos berriak sortu edo kontsolidatu dira, estatugintzaren bidea jorratzen ari dira hainbat lurraldetan, Eskozian, Irlanda eta Kaledonia Berrian kasu. Bestalde nazio horien arteko lankidetza eta sinkroniaren garrantzia gero eta nabariagoa da.

Hamar. Mendebalde eta Hegoaldeko lurralde batzuetan, Latinoamerikan batez ere, gobernantza politikoaren eredu alternatiboak sortu eta indar ezberdinen arteko aliantza eraldatzaileak osatu dira. Gaurko ezkerraren egoerak erdigunean jarri du aliantza politikoen artikulazioa. Baina Gobernua eta boterea ez dira beti sinonimoak. Egoera horrek zer pentsatua eman behar digu. Non jarri behar da indarra, kudeaketan ala marko diskurtsiboaren aldaketan? Ala bietan?

iratzar
FUNDAZIOA